

jokulariak 1 12

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES VASCOS
udazkena 2018 otoño

ENEKO SAGARDOY

AKTORE HANDI APAL BAT




OHAR GARRANTZITSUA

Jakingo duzue, eta hala ez bada orain dakizue, uztailean **WEB** orririk gabe geratu ginela. Boletín hau argitaratzerako gure aldetik egin daiteken guztia orria eguneratzeko egina egongo da. Jakizue, azken bi urtetako (17/18) afiliatu berriena izan ezik gainerako guztien informazioa 2015. urterainokoa dela. Beraz, dagoeneko egin ez baduzue, sartu WEB-ean eta ikusi nola dagoen zuen fitxa, eta eguneratu eta berritu behar diren materialak eta argazkiak gure bidali, mesedez, berritu dezagun.

eabdonostia@actoresvascos.com

NOTA IMPORTANTE

Como sabréis, y si no ahora os enteráis, en julio se nos cayó por completo la página **WEB**. Para cuando se publique este boletín nosotros/as habremos hecho todo lo que está en nuestras manos para actualizarla. Sabed que salvo los afiliados los últimos años (17/18) los datos recuperados alcanzan solo hasta el 2015. Por lo que, si todavía no lo habéis hecho, entrad en la WEB y comprobad vuestras fichas, y por favor la información que falte o las fotos que queráis renovar enviádnoslas para que nosotros actualicemos todo.



112

udazkena
otoño
2018
Azala Argazkia
Nico de Assas



08



04

12

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardezabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
eabbilbao@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com

SUMARIO

04	EDITORIALA Garai berrietara begira	15	Sormenarekin jarraituz EAB
06	IKASTAROAK	16	EGINDAKO
08	EKINTZA SINDIKALA Dictamen del congreso Gurutze Baztarrika		IKASTAROAK Vidal Erdozain, Carmen Pardo, Marta Urcelay
11	Euskaraldia	18	Zorionak Ramon!
12	Eneko Sagardoy, aktore handi apal bat Eneko Olasagasti		

Koordinazioa, edizioa
Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
Iosune Fernández
Inprimategia
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikulua.
Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.



GARAI BERRIETARA BEGIRA

Garbi dago denoi eragiten diguten aldaketa garaiak bizi ditugula bizitzaren arlo guztietan. EAB-n konzienteak gara horretaz eta etorkizunari begira prestatzen joan behar dugulakoan gaude. Egun dugun egitura duela ia hogeitau urte sortu zen, eta eskerrak ematen dizkiegu hori lortu zuten guztiei. Baina aldaketek ez gaitzaten beste alde batera begira harrapatu hemendik beste hogeira nolako sindikatua eduki nahi dugun pentsatzen hasteko tenorea heldu dela uste dugu. Horretarako, norantz joan nahi dugun erabakitzeko ausnarketa prozesu bat zabaltea erabaki du Zuzendaritze Batzordeak. 2019tik urrera helburua erdiesteko ze pauso emango ditugun aurrerago azalduko dizuegu.

Baina aldaketak ez direnez bapatean ematen gure esku dauden batzuk ematen hasiko gara. Eta lehena Boletin honi dagokio. Orain arte urtean bost ale argitaratu izan ditugu. Hemen-dik aurrera urtean lau izango dira, urteko sasoi bakoitzeko bana, orri gehiagorekin eta papera-

ren kalitatea piska bat hobetuz. Eta lehen frogale honekin egin dugu. Badakigu partaidetza ez dela gure arloaren ezaugarrietako bat, baina ezinbestekoa da gurea sentitu nahi badugu eta, beraz, edozein proposamen ongi etorria izango da. Boletineko aldaketen artean editoriala dago. Honen bitartez zertan ari garen azalduko dizuegu hiru hilero.

Azken Batzar Orokorrean orain dela hogeitau urte sortutako irudia eta logoa aldatzea erabaki zen. Prozesu hori udazkenean garatuko dugu eta urtea bukatzarekin batera domeinua .eus-era aldatuko dugu. Izena baita ere. Euskarak genero bereizketarik ez egotea errazten duenez "actores-vascos" izatetik "euskalaktoreak" izatera pasako gara. Bestetik, uztailleko Ezohiko Batzarrean Kote Cabezudoren biktimei gure elkartasuna azaltzeko erabakia hartu zen. Horrek inflexio puntu bat markatzen du gure azalpen publikoei dagokienez. Orain horrek ze jarrera eta eskuhartzetza suposatzen dituen aztertu beharko dugu.



Gure batzorde bakarra lanean serio ari da, Hezkuntza Batzordea. Dagoeneko bilerak egin ditugu EHME (Musika eskolak) eta ADDE-rekin (Dantzariak). Bilera eskatuta daukagu Hezkuntza Sailarekin Arte Eszenikoen Eskolen kontuaz aritzeko (Musika, Dantza eta Antzerkia). Horretan ari ginela albiste kezagarri bat jaso zen: Kultura Sailak Antzerki Eskolak laguntzeari utziko ziola. Konturatuko zaretenez bi gaiak gurutzatu egiten dira eta ez da une txarra etorkizunari begira erabakiak hartzeko. Hortxe egon nahi dugu guk ere eta dagoeneko harremanetan gaude Antzerki Eskolekin gaia modu koordinatuan eramateko. Horrekin batera **igarobide profesionalaren** gaia ere mahai gainean daukagu.

Vivimos tiempos de cambios y pensamos que es el momento de empezar a pensar que EAB queremos para el futuro. El primero que hacemos afecta a este boletín. A partir de este número publicaremos cuatro al año, uno por estación, pero con más contenido y páginas. También tenemos entre manos, para final de año cambios en nuestra imagen: logo, dominio... Y gestionar debidamente la decisión tomada en la asamblea extraordinaria de julio en la que se decidió solidarizarse y acompañar a las víctimas de Kote Cabezudo. Seguimos trabajando en la Comisión de Educación, ahora de la mano de Escuelas de Música y bailarines/as, para la modificación del Decreto del 92 que regula las actuales Escuelas de Arte y el desarrollo de lo que debería ser una regulación de la **transición profesional**.



AUTOEMPLÉATE: HAZTE MONOLOGUISTA CÓMICO

- ▶ Manuel Feijóo
- ▶ Castellano
- ▶ Donostia
- ▶ Noviembre: 10-11 y 24-25
- ▶ 10:00-15:00h.
- ▶ Precio 100 €

Objetivo del Curso

Darles a los alumnos las herramientas necesarias para poder desarrollar sus propios textos cómicos, y así acceder a este mercado. Gracias a este curso, el actor podrá ser, al mismo tiempo, empleador y empleado. Escribirá, dirigirá e interpretará su propio espectáculo. Sólo él tendrá la capacidad de decidir sobre su futuro.

Desarrollo del curso

- 1.** Teoría y práctica del cómico: El alumno recibe una guía en las que recibe plena información y recomendaciones generales para convertirse en cómico.
- 2.** Conocer a los cómicos: Durante el curso los alumnos visionarán distintos cómicos del panorama nacional. Igualmente, se visionan cómicos norteamericanos.
- 3.** Técnicas de escritura: El curso proporciona a los futuros cómicos las herramientas para poder desarrollar sus propios textos.

4. Prácticas: En busca del ritmo cómico: El curso ayuda a los alumnos a “quitarse el molde” del actor, para enfrentarse al público con una nueva actitud: La actitud del cómico de stand-up.

Manuel Feijóo

Mi nombre es Manuel Feijóo y sólo sirvo para una cosa: Entretener. Debuté a los 9 años de edad y desde entonces he trabajado como guionista en series de televisión y cine, he dirigido cortos y spots, he creado travel-shows y programas de magia, he sido actor, presentador y monologuista.

Hoy en día mi trabajo es coordinar y crear contenidos digitales para Grupo IZEN. Por otra parte, trabajo para el mundo de la empresa dando conferencias sobre renovación e ilusión, y presentando galas y eventos.

P.D.: También fui portada de la Súper Pop. Dos veces. Pero eso no lo cuento.



LA COMUNICACIÓN ENTRE INTÉRPRETES Y DIRECCIÓN

- ▶ Nely Reguera
- ▶ Castellano
- ▶ Bilbao
- ▶ Noviembre: Fin de semana
- ▶ Precio 100 €

Objetivo del curso

El objetivo del curso es profundizar en la comunicación actor-director, algo fundamental en la preparación y rodaje de una película. Aprender a trabajar con el director, a leer un guión, a entender el personaje que el director tiene en la cabeza y construirlo juntos. Mediante la preparación y ejecución de varias escenas revisaremos características del lenguaje cinematográfico que inciden en la interpretación. Tono, ritmo, género, presencia, acción y texto.

Nely Reguera

Nely Reguera es graduada en la Escuela Superior de Cine y Audiovisuales de Cataluña (ESCAC) en la especialidad de dirección. Como proyecto final de carrera escribe y dirige el cortometraje "Ausencias".

Posteriormente empieza a trabajar en el equipo de dirección en rodajes de publicidad, videoclips, cortos y más adelante, largometrajes como "Tres días con la familia" (Mar Coll) y "Blog" (Elena Trapé).

En paralelo dirige el documental "Muxía a fe-rida" sobre las consecuencias de la catástrofe del Prestige y más adelante el cortometraje "Pablo". Seleccionado y premiado en varios festivales, entre otros Alcine, Gijón, Huesca, Mecal, Concurso Versión Española-SGAE.

En el año 2010 empieza a colaborar con A Bao A Qu, en el proyecto Cine en curso, impartiendo talleres de cine en cursos de primaria y secundaria. Entusiasmada con la experiencia, trabaja con ellos hasta el verano de 2017.

También da clases en la ESCAC, donde imparte asignaturas relacionadas con la narrativa y la dirección cinematográfica en los cursos de segundo y cuarto.

"María (y los demás)" es su primera película, estrenada a finales de 2016, la película ha tenido muy buena acogida por parte de público y prensa y ha sido nominada a los Goya en las categorías de Mejor Interpretación Femenina para Bárbara Lennie y Mejor Dirección Novel.



DICTAMEN DEL CONGRESO

Badakigu **Artistaren Estatutuaren** kontua ez dela erraza ulertzeko, batez ere letra txikia deritzona. Horregatik, xehetasunak eta argibideak emateko, **Jardunaldi Informatiboak** antolatuko ditugu urrian Donostian eta Bilbon. Datak aurrerago zehaztuko ditugu.

Testua **Gurutze Baztarrika**

Somos conscientes de que no es fácil entender de qué va el **Estatuto del Artista**, y su letra pequeña. Por ello, para explicar los detalles y las propuestas, vamos a organizar unas **Jornadas Informativas** en Donostia y Bilbao. Las fechas las concretaremos más adelante.

Después de un año de trabajo, los partidos políticos con presencia en el Parlamento Español, constituidos en Subcomisión de Cultura, aprobaron por unanimidad un Dictamen que recoge propuestas y recomendaciones para redactar un futuro Estatuto del Artista.

Este futuro Estatuto englobará distintos sectores o gremios, pero el dictamen no se ha clasificado según ese criterio sino por grupos de problemas socio-laborales.

Según dice el preámbulo del Dictamen, mediante el desarrollo del Estatuto del Artista se

trata de mejorar las condiciones materiales pero también de llamar la atención sobre la importancia de la cultura y de manifestar claramente que los autores/as y profesionales de la cultura merecen una remuneración justa y merecen estar protegidos/as en la misma medida que lo están el resto de trabajadores/as u/o profesionales.

También es importante resaltar que estas medidas, de ámbito estatal, deben servir para mejorar las condiciones de las/os profesionales en todo el territorio estatal independientemente de que luego a nivel autonómico o local se le dé diferente desarrollo.

Los 78 puntos recogidos en el Dictamen se concentran en tres bloques: Fiscalidad, Protección Laboral y Seguridad Social, y Compatibilidades

FISCALIDAD

Se proponen algunas posibilidades interesantes para amortiguar la irregularidad en los rendimientos de los/as artistas a lo largo de los años.

• **1ª Posibilidad:** Obtener un promedio de los rendimientos netos obtenidos en los tres o cuatro años.

La mecánica sería la siguiente:

1. Determinamos los rendimientos netos obtenidos en el ejercicio.
2. Si ese rendimiento neto del año es superior a una cantidad tope que se establezca, todo lo que supere esa cantidad junto con los rendimientos obtenidos por otra fuente diferente a la artística tributan como el resto de contribuyentes, en la tarifa general. Las demás cantidades, es decir, hasta llegar a ese tope tributan también a la tarifa general pero

no aplicada directamente sobre esa cantidad y en el año o ejercicio del que se trate sino sobre ésta más el rendimiento neto de los años anteriores (2, 3, 4...) obteniendo la media aritmética de estos años.

• **La 2ª Posibilidad** que recomienda como digna de estudio es la de la exención del 30% de los ingresos irregulares.

La exención de las rentas irregulares está regulada en la norma pero las obtenidas por actividades artísticas no están comprendidas en la lista cerrada de actividades por lo tanto habría que modificar la norma para incluir las actividades artísticas.

También se recomienda admitir la deducción de los siguientes conceptos en la declaración del IRPF:

- Gastos de formación.
- Gastos de instrumentos y herramientas de trabajo.
- Gastos de honorarios y comisiones de representantes artísticos u otros intermediarios.

En las declaraciones de IRPF por rendimientos obtenidos por actividades económicas se recomienda homogeneizar a nivel estatal mediante criterios objetivos, determinados gastos deducibles para equiparar los tributos ante situaciones análogas.

Por último, se recomienda reducir las retenciones a cuenta del IRPF, cuando son rendimientos de pequeño importe o rendimientos obtenidos por contratos de corta duración.

Y la recomendación, tan demandada en todos estos años por los artistas en general:

Reducir del 21% al 10%, el IVA de toda la cadena de valor de la actividad artística.

PROTECCIÓN LABORAL Y SEGURIDAD SOCIAL

• Protección Laboral, recomendaciones para trabajar y desarrollarla:

1. Las adaptaciones normativas necesarias en materia laboral para facilitar la actualización y adaptación de las existentes para proteger a todo el espectro artístico, incluyendo a los artistas que están excluidos/as, así como para adaptarlo a la nueva realidad de los medios de fijación del trabajo cultural y de las nuevas fórmulas de difusión.
2. Adaptación normativa para, teniendo en cuenta la precariedad de la actividad artística en general, permitir el acceso a la representación sindical, difícil por no decir imposible en la actualidad de conformidad con la normativa sindical existente.
3. Adaptaciones necesarias para regular y mejorar el funcionamiento de las/os trabajadoras/es artistas autónomos. En este apartado merece mención concreta la lucha contra la proliferación de los llamados "falsos/as autónomos/as".
4. Por último, la necesidad urgente de regular el trabajo de los menores en los espectáculos públicos.

• Prestaciones y cotizaciones a la Seguridad Social, recomendaciones:

1. Modificar las reglas para el cómputo de la cotización para obtener la pensión de jubilación para permitir que las/os trabajadoras/es puedan descartar los peores años de cotización de la vida laboral.
2. Permitir compatibilizar la actividad artística con la jubilación.
3. Flexibilizar y mejorar el acceso a las prestaciones de desempleo.

4. Modificar la modalidad de cotización para que en la fórmula de las regularizaciones a final del año, la asunción de la carga de Seguridad Social no recaiga exclusivamente en el trabajador/a y las empresas asuman una parte de las mismas, así como estudiar otras opciones de financiación a través de las sociedades de gestión.
5. Adaptar la norma para que el acceso a prestaciones por situaciones de embarazo y maternidad sea en términos que permita afirmar que no se produce ninguna discriminación derivada de género en la actividad artística.
6. Adaptación de las normas para que artistas que trabajen en profesiones con exigencias técnicas y físicas especiales puedan tener programas de apoyo para hacer la transición profesional y laboral a otras actividades con menos exigencia y acordes a su edad laboral.
7. En torno a la salud laboral.

COMPATIBILIDAD de percepción de prestaciones públicas con ingresos de Propiedad Intelectual y por trabajos artísticos

Lo que se recomienda es tomar todas aquellas medidas que no sólo permitan sino que favorezcan el que las/os creadoras/es artísticas/os puedan compatibilizar el percibo de la pensión (normalmente de jubilación) con el desempeño de su actividad artística en las mismas condiciones que el resto de pensionistas o perceptores de prestaciones, condiciones ya reguladas en la Ley General de la Seguridad Social (LGSS). También la compatibilidad del percibo de la prestación con el percibo de los rendimientos económicos derivados de la Propiedad Intelectual.



EUSKARALDIA

ZER DA EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKERAZ?

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra

- 11 egunez euskararen erabilera areagotzea eta euskaraz hitzegiteko espazio gehiago sortzea.
- Norbanako bakoitzak erabakia hartuta, modu kolektiboan egingo dugun ariketa.
- Gure eguneroko herramanetan ditugun hizkuntza ohiturak eta inertiak astintzeko, eta uste baino gehiagotan euskaraz komunikatzea posible dela frogatzeko

Izena ematea irailaren 20an irekiko da

www.euskaraldia.eus

Parte hartzeko bi aukera



AHOBIZI: Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Eta ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egiten diet.



BELARRIPREST: Egidazu euskaraz; nik erdaraz zein euskaraz erantzungo dizut.

ENEKO SAGARDOY AKTORE HANDI APAL BAT

Testua Eneko Olasagasti



Argazkia Arxibo EAB

Egun batetik bestera, erabateko ezezaguna izatetik, ia esan daiteke inoizko euskal aktorerik ezagunena bihurtu dela Eneko Sagardoy (Durango 1994) "Handia" eta "Errementari" filmei esker. Eta gainera soka luzea dute oraindik bi pelikulek. Formakuntza handirik ez duela aitortzen du. Aholkuak emateko baino jasotzeko dagoela oraindik esan digu ere. Hona berarekin izan dugun solasaldia.

Nik Huhezi fakultatean ezagutu zintudan... Baldin badakizu, zerk bultzatu zintuen aktore izatera?

Karrera egin nuen, ez nuelako sinesten aktore moduan lanbidea aterako nuela. Dena den, asko ikasi nuen Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten nahiz eta klasera gutxi joan. Barru-barruan banekien oholtzan edo kamera aurrean, fikzioaren munduan bizi nahi nuela. Beti izan dut irudimena eta gustatu izan zaizkit ipuinak eta pelikulak... ez dakit zergatik bukatu dudan aktore moduan. Suposatzen dut, gezurrezko mundua dibertigarriagoa iruditzen zaidala egiazkoa baino.

Zein da zure formakuntza?

Nire formakuntza oinarritu da ikastaro laburretan. Luzeena Santanderren egin nuen Espacio Espiral laborategian. Antzerki fisikoa, dantza, dramaturgia eta musika konposaketa nahasten genituen. Hilabete oso ederrak izan ziren. Eta bestela, irakasle desberdinekin, han eta hemen, beti labur, nahi baino laburrago, ez dakizkidan gauzak ikasi nahian.



Eneko Sagardoy Aktore Berri Onenaren Goya saria jaso zuen 2018ko emanaldian. Argazkia Antena 3

Zein proportziotan nahasten dituzu zure lanetan teknika eta intuizioa?

Teknikarik ez dut ikasi bere horretan. Beraz, esango nuke, intuiziotik asko tiratzen dudala beti. Dena den, ikusten noa zerk funtzionatzen didan, zer gustatzen zaidan beste aktoreetatik... antzerkia ikusiz asko ikasi dut, imitatuz eta gero neure eginez... apurka-apurka banoa eroso sentitzen, baina formazio luzeago baten beharra ez dut asetu oraindik. Etorriko da.

Mitozalea zara? Zein aktore miresten duzu? Bazu duzu eredurik?

Ez naiz mitozalea. Denok gatoz leku beretik eta leku berean bukatuko dugu, beraz... Baina bai, asko gustatzen zaizkit Issabelle Huppert edo Daniel Day-Lewis adibidez. Denis Lavant oso-oso inspiragarria zait beti. Hurbilenean miresten dudan jende asko dago. Miren Gaztañaga bihotzeko laguna da, baina lanean ikusten dudanean asko ikasten dut. Biok gara eskola gabeakoak, basati xamarrek eta gustatzen zait.

Zein da aktore batengan ezaugarririk garrantzitsuena?

Ez dakit... nik askotan lortu nahi izaten dut ez pentsatzea. Ez pentsatzea lortzen duen aktoreak, gauzak erraz egin ditzake. Nik hori askotan bilatzen dut, baina zaila da lortzen. Intentsitate handienez, testu askorekin kargatu arren pertsonaia, haserre bizian,

barrutik solte ibiltzea aktorea... hori oso gustagarria zait. Baina zaila da.

Zein aholku emango zenioke aktore izatekotan dabilen gazte bati?

Ni naiz aholku bila dabilen aktore gazte bat. Niri gustatzen zait entzutea. Denetarik entzun eta gero erabaki zer sinesten duzun eta zer erabiliko duzun. Jende oso desberdinarekin ari naiz lanean. Ikusten eta entzuten asko ikasi dut. Baina gehien-gehien, han edo hemen, hau edo beste egiten. Egitea da inportantea. Horri ari naiz bueltak ematen azken aldian...

Zergatik egin zinen EAB-ko bazkide?

Gure eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko espazio bat iruditzen zaidalako.

Batzar batean gazte batzorde bat sortzeko proposamena egin zenuen. Ze helbururekin? Arlo horretan zer lan mota egin beharko genuke EAB-tik?

Nire inguruko aktore gazte gehienek ez dakite zer den EAB, zein diren gure eskubideak edo zein den soldata duin bat. Dietak, kontratuak, kotizazioa, Lanbide... guzti hori ikasten ari naiz... EABk horretan asko lagun dezake. Gazteok informazio hori jaso eta gure kezke eta proiektuez hitz egiteko espazio bat sortzea interesgarria iruditzen zait.



Nola bizi izan duzu egun batetik bestera ezaguna, oso ezaguna izatearena?

Beti izan diot beldurra ezaguna izateari. Edo horri baino gehiago, oso begiratu izateari. Baina uste dut eta espero dut, pasako dela. Erosoago nago itzalean, txikian... agian beldurrak dira. Disfrutatu dut ere bai, asko. Hilabete ederrak, gogorak eta iraultzaileak izan dira. Gauza asko aldatu zaizkit barruan.

Erraldoiak eta deabruak egin zaituzte ezagun. Pertsonaia berezietan enkasilatzeke beldurrik?

Enkasila nazatela nahibeste. Maite ditut halako pertsonaia. Oso ondo pasatzen dut.

Euskal zinemaren gorakada, zer da? Egun bateko lorea ala gelditzeko etorri da? Eta azken hau bada, zer behar du zure ustez egonkortzeko?

Ez dakit. Uste dut asmatzen ari garela egiten ari garen gauza askorekin. Hori baino ez. Gauza onak egiten ari dira eta hori denon mesederako da. Erreferentzia hauek, datozten eta gazozen sortzaileoi indarra ematen digute. Beraz, uste dut, egingo dugula aurrera. Gora egitea baino, nahiago aurrera egitea. Eta sakonera bada, hobeto. Gora egitea ez dakit zer den oso ondo.

Zein da Euskal zinearen papera Euskal Kulturgingtzaren ekosisteman?

Auskalo. Orain denok maite dugu.

Zein paper jokatu beharko luke ETB-k euskal ikusentzunezkoetan?

Sustatzailea nagusia izan beharko luke. Errementari eta Handia ETBri esker egin dira hein batean. Haien bete-beharra da fikzioan dirua jartzea. Fabrika izan beharko luke ETBk.

Zerbaiterako balio izan dizu ezaguna izateak?

Lehengoan Bilboko txosna batean gonbidatu egin ninduten trago batera.

Esan ohi da zailena ez dela iristea mantentzea baizik?

Ez dakit nora iritsi naizen ere. Gustatzen zait esaldi hori esaten duena: nagoen tokira noa. Ba hori... banao apurka-apurka.

“Oskar” esaten badizut zer datorkizu burura?

Urrezko figura bat eta argazki flashak.

Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Orain irailean Madrilan nago FEDRA antzezlanarekin. Urritik aurrera gira egingo dugu Espainiar Estatutik. Urria bukaeran Madrilera goaz Obabakoak-ekin. Udan Fernando Bernuesek zuzendu duen “Soinujolaren semea” filmean parte hartu dut. Printzipioz hori aurreratu dezaket.



Argazkia Artxibo EAB

SORMENAREKIN JARRAITUZ

Aurrera darraigu "Sormenaren parte izan" egitasmoarekin. Aurreko boletinean esaten genuen moduan aurten Gipuzkoan bi txanda antolatu ditugu. Lehenengoa apirilak 24 eta maiatzak 3 bitartean izan zen. Zuzendari moduan Agurtzane Intxaurre eta Belen Cruz bazkideak aritu ziren eta aktore lanetan: Donostiako Luberrin eta Errenteriako Bizarain ikastetxetan garatu zen. Eta guztiaren ardurua Esther Uriak izan du.

Bigarren txandako datak eta ikastetxeak artikulu hau idazterakoan guztiz zehaztu gabe ditugu baina ziurrenik, ihazkoa bezala, urri bukaera eta azaro hasieran izango da. Ikasturtea hastearekin batera lotuko ditugu datak eta emailaz jakinaraziko dizkizuegu. Hamar aktorerentzako lan eskeintza da, bost entsegu egun eta seigarrenean emanaldia. Ikasleek nolabaiteko dramaturgia

lana egiten dute, sortzen den 15/20 minutuko piezaren jarraipena egunero eginez. Bi ikastetxetan sortutakoak egun berean aurkezten dira ikasleen partaidetzarekin. EAB-k ekoizten du konbenioki tarifak aplikatuz. Euskaraz da ekimen osoa.

Bestetik, nahikoa aurreratua ditugu Bizkaiko Aldundiarekin harremanak egitasmoa Bizkaian garatzeko. Uda aurretik izan genituen bilerak eta irailan berrekingo diogu. Interes handiz hartu du gaia Kultur Departamentuak eta 2019n garatuko litzateke Bilbon eta inguruko beste herrien batean. Guztiaren berri zehatzagoak aurrerago emango dizkizuegu. Erne egon beraz. Parte hartu duten aktore guztiek diote esperientzia ezinhobeia izan dela ikasleen partaidetzaren sortutako antzespentetan parte hartzea.


EAB

ENTRANDO EN LAS REDES

Este curso fue organizado por EAB, y se impartió a unos siete alumnos en horarios de mañanas. El curso al principio del mismo, como ya nos adelantó la responsable de la acción formativa Amaia Ocerin, no contemplaba hacer prácticas de ninguna herramienta de redes sociales, y únicamente se daría información general y específica con las características de cada herramienta y la utilidad para lo que están creadas. Amaia nos dio un contenido de herramientas de redes sociales muy considerable, para que nosotros pudiéramos elegir las que más se acomodaran a nuestras expectativas, después de que valoráramos cada una de ellas, con la finalidad de poder utilizar dichas herramientas que el ámbito de Internet nos ofrece para la divulgación de nuestros trabajos y de nuestro perfil profesional en el ámbito de la interpretación, desde la pretensión de presentar todo ello, de una forma real, clara y fidedigna.

Se nos dio información sobre: Facebook, Youtube, Instagram, y un número considerable de herramientas de redes sociales, como aplicaciones y páginas web. El curso, a mí particularmente, me resultó muy interesante ya que finalicé el mismo con una idea más esclarecedora de las distintas herramientas de redes sociales que se pueden aplicar para nuestra profesión de la interpretación.

Tengo que decir que quedaron incompletas las expectativas que yo tenía antes de saber cómo se desarrollaría la acción formativa de este curso, ya que pensé que nos adiestrarían en alguna de las herramientas enfocadas a nuestra profesión en las redes sociales; pero cuando me dijeron el contenido del curso no quise renunciar a él porque me pareció que me podría servir para detectar las herramientas que se podían ajustar a mi pretensión para el uso de las redes sociales.



Entiendo que se podía plantear otra acción formativa con la práctica de alguna de las herramientas de redes sociales más importantes en nuestro espectro de la interpretación.

Vidal Erdozain

ARTE Y COMEDIA

Fabio Mangolini es actor, director, dramaturgo y docente italiano formado en la Escuela Internacional de Mimodrama que dirigió Marcel Marceau. También trabajó con el maestro japonés Nomura Kosuke en Tokio. Ha dictado cursos y talleres en Europa, América y Asia. Entre otros cargos ocupó la presidencia de la Fundación Teatro de Ferrara del que es coordinador artístico. También es Director de la Asociación Escuela de la Opera de Italia. Pero sobretodo es un apasionado de la filosofía, de la humanidad, siente curiosidad por todos los aspectos de la vida. Gracias al acuerdo entre EAB, AISGE y DANTZERTI, hemos podido disfrutar del curso El actor y la máscara los días 27, 28 y 29 de abril.

Fabio entiende el teatro como un crecimiento de la humanidad. Esta dimensión humanística la lleva a sus clases y comienza en él mismo, pues es un tipo cercano y transmite mucha confianza y entusiasmo. En su trabajo como pedagogo del teatro hace hincapié en la escucha, ese estado previo a cualquier creación actoral, la escucha profunda, "respirar" la situación que se propone. El curso estuvo "habitado" por Pantalone, Pulicnela, Arlequino y toda la galería de personajes de la Comedia del Arte.

Carmen Pardo



BUSCANDO LA VERDAD

De la mano de María Ripoll

La búsqueda de la verdad es algo que a nosotras, actrices y actores debería llamarnos, y nos llama, y es así como la directora de cine María Ripoll decidió titular el curso que impartió el pasado fin de semana en Astigarraga.

Nos juntamos un grupo maravilloso, colorido en cuanto a procedencia y formas de hacer, pero homogéneo en lo tocante al compromiso y al trabajo, 11 mujeres y 3 hombres con ganas de dejarnos guiar y aprender lo máximo posible de nuestra maestra en esa travesía de la búsqueda de la verdad. Como María misma dijo en la presentación del curso, tal vez no fuera a decir cosas que no supiéramos -en algún momento las hemos escuchado y aplicado, pero a veces los actores y actrices olvidamos. Nos complicamos y nos perdemos. Y ahí estaba María para reconducirnos a la senda correcta. Cada una de las asistentes tenía unas expectativas y unos objetivos diferentes, y sinceramente, creo que todo el mundo se marchó satisfecho del encuentro. Ha sido un fin de semana intenso, en el que hemos compartido trabajo, ilusiones, ganas de aprender, tareas y emociones.

¿Y qué decir de María? La Ripoll es una mujer con las ideas claras. Diez películas a sus espaldas ya lo dicen todo. Pero además, es una directora cercana y con la que da gusto trabajar porque te da seguridad. Desde la primera toma de contacto con el grupo, se sentaron las bases de lo que viviríamos las siguientes 36 horas: trabajo en libertad tratando de crear entre todas y todos, y sobre todo, buscando la verdad, ya que es ahí donde el actor y la actriz encuentran, encontramos, el placer.

El hecho de que todas compartiéramos un agroturismo donde hemos ensayado, rodado, comido, reído, dormido, y mil cosas más, o mil y una, ha resultado clave para el éxito del curso. Concretamente, en mi caso, me tocó compartir habitación y secuencia con Lourdes, que en la ficción ha sido mi hermana. Fantástico, porque aunque parezca poco tiempo, que dos días no es nada -¡imagínate, la canción hablaba de 20 años!- ella y yo pudimos construir una relación de amistad que nos ayudó muchísimo en la secuencia. Y es que en estas cosas, cuando los cursos se hacen



desde el corazón, es de esperar que surja la magia. En varias ocasiones durante el fin de semana escuchamos a María decir con una gran sonrisa en la boca: "¡Qué gozada! Esto parece un rodaje de verdad!" Y es que es a lo que jugábamos, a rodar de verdad. Todas las compañeras y compañeros hemos colaborado en las diferentes tareas de un rodaje; cada una hacía lo que podía, desde sujetar el micro, que ya tienen mérito los sonidistas, hasta tocar el ukelele -bueno, eso solo Sandra, y maravillosamente, además- para completar una escena.

Increible equipo con el que ha contado la dire: Iñigo Arambarri, Sandra Fernández Aguirre, Mary Zurbano, Ana Furones, Bego Guerrero, Klara Intsausti, Judith Lorenzo, Miriam Martín, Patxi Pérez, Aritza Rodríguez, Adriana Salvo, Ainara Unanue, Lourdes Villagran y yo misma, Marta Urcelay.

Y por si fuera poco, tuvimos la mejor casera del mundo, Arantza, una baseritarra que disfrutó con la experiencia tanto o más que nosotras. Momentos increíbles los que nos regaló esta mujer.

Marta Urcelay



66

2018
Iraila
Septiembre
21/29

SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián

Argazkia Adrian Garcia Txintxarrentzat

ZORIONAK RAMON!

Aurtengo zinemaldiaren edizioan, SSIFF66, inoiz baino euskal filma gehiago aurkeztuko dira. 20 pelikula sail diferentetan banatuak: Sail Ofiziala, New Directors, Culinary zinema, Zinemira eta Zinemira Kimuak. Horrek esan nahi pelikula horiek euskal partaidetza dutela alor ezberdinetan: Ekoizpena, Zuzendaritza eta, besteak beste nola ez, aktoreak. Esan daiteke, beraz, aurtengo edizioan inoiz baino euskal aktore gehiago ikusi ahal izango direla pantailatan. Luze joko luke eta espazio gutxi daukagu hemen denen aipamena egiteko.

Baina guztiaren gainetik bada bereziki poztu gaituen albistea, zeren aurtengo Zinemira saria Ramon Agirre aktorearentzat izango da. Bere

aurretik sari hau ondorengo zinegileak jaso izan dute: Imanol Uribe, Alex Angulo, Elias Querejeta, Michel Gaztambide, Juanba Berasategi, Pedro Olea, Karmele Soler, Ramón Barea eta Julia Juaniz. Beraz gure zorionik beroenak Ramonentzat.

Luze joko luke ere Ramon Agirrerren filmografía hemen jartzea, beraz, aurtengo edizioan bere partaidetza duten filmak aipatuko ditugu soilik: "Oreina" (Koldo Almandoz), "Black is beltza" (Fermin Muguruza) eta "Errementari" (Paul Urkijo). 2019an beste bi lan estreinatuko ditu: "Dolor y gloria" (Pedro Almodovar) eta "Agur Etxebeste" (Asier Altuna eta Telmo Esnal).

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO
DITUZUN SERBITZUEN DESKONTUAK

**SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER
DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION**

GIPUZKOA

Academia de idiomas OUI	20%	www.academiaoui.com
Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta	15%	www.mikelmartinez.net
Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel	15%	ainhoexki@hotmail.com
Tai Chi Chuan Eskola	15%	www.taichichuaneskola.com
Videos Zazpiterdi	15%	http://zazpiterdi.com/es
Videos Zumeta	15%	www.zumetavideo.com

BIZKAIA

Coach Yannick Vergara	20%	yannickv@hotmail.com
Librería de Artes Escénicas Yorick	5-15%	www.libreriayorick.com/teatro/
Maquillaje profesional Alicia Suárez	15%	www.aliciasuarez.net
Peluquería Glamuforia	15%	es-es.facebook.com/glamuforia
Videos Yolanda López de Heredia	15%	yolandalzhheredia@gmail.com

ANTZOKIKO DESKONTUAK

Alegria Dulantzi	0% <small>Precios populares</small>	www.alegriadulantzi.com
Arriaga Antzokia	25%	www.teatroarriaga.com
Barakaldo	50%	www.teatrobarakaldo.com
Donostiako Antzokiak	10%	www.donostiakultura.com
Elorrio	50%	www.arriolaka.eus/es
Gasteizko Antzokiak	20%	www.principalantzokia.org
Lobiano Kulturgunea (Ermua)	25%	www.ermua.es
San Agustin Aretoa (Durango)	25%	www.durango-udala.net/sanagustin
Oreretako Kulturgunea	10%	www.errenteria.net
Zornotza Aretoa	25%	www.zornotzaaretoa.net
Zumaia	50%	www.zumaia.eus/es

